BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

387

EBAZPENA, 2011ko urriaren 17koa, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariarena; honen bidez, mendi nekazaritzako eremuetan landa garapeneko aitzindari-proiektuetarako laguntzak arautzen dituen azaroaren 28ko 242/2000 Dekretuaren kariaz 2011ko ekitaldian emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzen da.

Mendi-nekazaritzako eremuetan landa-garapeneko aitzindari-proiektuetarako laguntzak arautzen dituen azaroaren 28ko 242/2000 Dekretuaren 8.3 artikuluan ezarritakoa betez (abenduaren 23ko 336/2003 Dekretuz aldatuta), Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2011ko urtarrilaren 18ko Agindua argitaratu zen, 2011ko ekitaldian laguntza horietarako deialdia egiteko.

Landa eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariaren 2011ko uztailaren 14ko Ebazpenaren bidez, aipatutako dekretuak ematen dion eskumena erabiliz, eta balorazio-batzorde teknikoak emandako ebazpen-proposamena oinarritzat harturik, aurkeztutako eskabideak ebatzi ziren dekretuaren 10.1 artikuluan zehazten denez.

Era berean, aipatutako dekretu horren 10.3 artikuluan zehazten denez, eta dagozkion ebazpenak banan-banan jakinarazi behar badira ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira Landa eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariaren ebazpen bidez agindu horren babesean emandako diru-laguntzen zenbatekoak eta onuradunen zerrenda osoa.

Horrenbestez, ondokoa

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Mendi-nekazaritzako eremuetan landa-garapeneko aitzindari-proiektuetarako laguntzak arautzen dituen azaroaren 28ko 242/2000 Dekretuaren babesean 2011ko ekitaldian emandako diru-laguntzak argitaratzea, denek horren berri izan dezaten. Aipatutako zerrenda hori ebazpen honi erantsi zaio.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gorako errekurtsoa jarri ahal izango diote Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordeari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 17a.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendaria,
JUAN PABLO MEDRANO OLMEÑO.

ERANSKINA

Mendi nekazaritzako eremuetan landa garapeneko aitzindari-proiektuak gauzatzeko diru-laguntzak arautzen dituen azaroaren 28ko 242/2000 Dekretuaren babesean 2011ko ekitaldian emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda

Onuraduna	Zenbatekoa eurotan
Behemendi	9.334,39
Behemendi	7.928,86
Enkarterrialde	13.780,00
Urkome	4.875,00
Zeraingo Udala	27.625,00
Zambranako Udala	10.000,50
Eibarko Udala	16.200,00
Gaibala	16.537,64
Goimen Elkartea	45.100,00
Antigua Hermandad de Sierra Salvada	19.709,90
Debemen	29.687,50
Asociación Ozaeta Kontsumitzaile Taldea	15.748,40
Urkiola	12.991,80
EHNE Bizkaia	13.775,36